



1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Gure gizartean, Elizan, parrokian, familian: onartzen al dugu elkar, garen bezalakoak izanik ere, geure ahultasun, akats eta ezberdintasun eta guzti? Gertatu al zaigu noizbait inor epaitzea eta, gero, horri buruzko iritzia aldatu beharra izatea?
- ✓ Zein bertute landu behar genuke, bestea guk nahi bezalakoak izan dadin aldarazten ez saiatzeko? Zer egin dezakegu geure bizitzan, parabolak erakusten dizkigun Jainkoaren ukitu horien araberakoak gu izateko?
- ✓ Munduari, inguruan dituzun pertsoneri begiratzen diezunean, zer ikusten duzu aurrena: garia ala iraka? Gauza al zara antzemateko pertsonak, ahulak izanik ere, gari ona direla? Iraka ikustean, pertsonen alderdi ona ikusteko ahalmena galtzen al duzu? Bai erraza dela iraka ikustea eta gari azahaztea!
- ✓ Jabeak es die morroiei iraka erauzten utzi. Erauzi, ezabatu, ote daiteke behin betiko iraka gure bizitzatik, beste pertsonen bizitzatik? Nora erantzuten dut, horretaz ohartzen naizenean?

3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Belar txarrik gabeko soroa izatea nahi dute morroiek; jabeak, aldiz, gari ona nahi du. Berak duen begiratu izatera deitzen gaitu Jaunak, gari ona ikus dezagun eta, aldi berean, gari ona belar txarretatik zain dezagun.

Eska diezaiogun Jaunari eman diezagula Berak duen begiratu errukitsua, begiratu zuzena, eta lagun diezagula irakaren aurrean itxaropena ez galtzen, ez geure bizitzan, ez besterenean. Zuk eman, Jauna, arnas berri, sortu niregan bihotz garbi.

4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Munduari eta pertsoneri begiratzeko dugun era aldatzera konprometitzen gaitu testu honek. Irakak ez ditzala lausotu gure begiak, eta ez dezagula galdu munduan iraka baino gari askoz gehiago dagoela ikusteko ahalmena.

JAINKOA
JARTZEN
DUT NITZE
ITXAROPENA

Hitzarekin
topatuz

4. fitxa, Mt 13, 24-30

GARIA ETA IRAKA
UTZI BIEI BATERA HAZTEN





Mt 13, 24-30

24 Beste parabola bat proposatu zien Jesusek: «Jainkoaren erregetzarekin, gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. 25 Etxeko denak lo zeudela, etsaiak soroan sartu eta gari artean olo gaiztoa erein zuen eta alde egin. 26 Garia hazi eta burutu zenean, olo gaiztoa ere agertu zen. 27 Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiari esatera: «Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik du, bada, olo gaiztoa?» 28 Hark erantzun zien: «Etsaiaren lana da hori». Eta morroiak: «Joango al gara olo gaiztoa biltzera?» 29 Baina nagusiak: «Ez, ez dadila gerta olo gaiztoa biltzean garia ere ateratzea. 30 Utzi biak batera hazten uztaoa iritsi bitartean; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehenik olo gaiztoa, lotu eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora»».



Textua ulertzeko

- ✓ Gaitza, gaiztakeria, da itxaropenaren etsaietako bat, itzali egiten baitu, ezkututzen, uxatzen, bete ezinekoa egiten... Gaiztakeriak, halakoa nahiz bestelakoa izan, urrutiratu egiten ditu pertsonak Jainkoagandik eta fedetik. Zer egin dezakegu horren aurrean geure fedearen bizipen pertsonalean? Horretako, oso kontsolagarria dugu irakaren parabola. Errealitateari aurrez aurre begiratzera gonbidatzen gaitu Jesusek, nolakoa den ikusteko eta Jainkoak nolakoa nahi duen sumatzeko. Munduan den gaitzari, gaiztakeriari, zein erantzun eman proposatu nahi digu Jesusek, zeruko Erreinuaren ikuspegitik begiraturik. Zer egin gaitzaren aurrean? Nola aurre egin gaitzaren misterioari?
- ✓ Bibliako Hasiera liburuak gauza guztien sorreraz dakarren kontaera oroitarazten digu soroan hazi ona ereiteko uneak. Neurrigabeko bere maitasunak sorrarazi zituen Jainkoak gauza guztiak, eta hazi ugari erein zuen, betieran fruitua eman zezaten. Askotan irakari begira gelditzen gara eta ez digu garia ikusten. Gure errealitatea gauza txarrak beste ezer ez dagoela iruditzen zaigu, gure munduan dena gaiztoa dela. Horregatik, beharrezkoa dugu Jainkoaren alor ederra ikustea ere: garia ikusten saiatzea, gari-landare berdea eta horia, galburuz eta alez betea, iraka pozoitsu eta txarrari begira gelditu gabe. Parabolak aipatzen duen soroa mundua izan daiteke, baita Eliza ere edota gizaki bakoitzaren bizitza.

- ✓ Jainkoaren oso eder horretan, hazi onaren tartean, jabearen etsaiak iraka gaiztoa maltzurkeriaz nola erei zuen kontatzen digu gero parabolak. Alde batetik, Jainkoa dugu bere egintza onarekin: Jainkoak beti hazi ona ereiten du, egun-argitan egiten du lan, uztarik hobereana lortu nahi du. Beste aldetik, berriz, Jainkoaren etsaia dugu: gauko ilunpetan ereiten du hazi txarra Jainkoaren alorrean, bekaitzez, inbidiaz, gorroto hutsez egiten du lana, Jainkoaren egintza zapuztea beste asmorik ez du. Munduari begiratzean, gaitza hor dela ikusten dugu: gerrateak, gogorkeria, gaitzak, bidegabekeriak, ustelkeria... Ez dira ustekabeko hutsegiteak; ez dira halabarrez gertatuak. Bada munduan gaitza ereiten duen norbait; Jesusek deabru deitzen dio, eta munduan gaitza ereiten ari da, Jainkoaren salbamen-asmoa oztopatu nahirik. Munduan den gaitza, beraz, ez dator Jainkoagandik, haren etsaiagandik baizik, Gaiztoagandik.

- ✓ Ez zaigu erreaza gertatzen gaitzaren misterioa ulertzea, nondik datorren ikustea... San Paulok oso argi adierazten du bere gutun batean: «Ez dut neure jokabidea ulertzen, nahi dudana ez baitut egiten, eta gorroto dudana, huraxe egiten dut » (Erm 7, 15).



- ✓ «Joango al gara iraka biltzera?» Gaitzaren aurrean betidanik dugun tentazioa etortzen zaie, eta ulertzekoa da: zuztarretik ateratzea gaitza. Jabeak, ordea, beste ikuspegi bat du: itxoiten jakin beharra dago, Jainko errukitsuak duen pazientzia eta konfiantza izaten jakin beharra dago. Gizakiok dugu pentsaerari harrigarri iruditzen zaio hori, ilogikoa. Etsaiak ere maita ditzagula eskatu digu Jesusek. Gaitzaren, gaiztakeriaren iturria borrokatu beharra dago, baita beraren garapena eta ondorioak ere; pertsonak, ordea, sakratuak dira eta beste era batera tratatu behar ditugu. Mundu den alorrean nahiz Elizan den ongia, isilik hazten ari den ongia, ikustea eta ezagutzea dago-kigu morroi-mirabe garenoi, Jainkoaren lankide garenoi, aldien bukaera arte. Orduan, Jainkoak, eta beste inork ez, egingo du justizia; Berak bereiziko du iraka garitik.
- ✓ Ez da harritzekoa munduan iraka izatea; ez gaitu horrek eraman behar porrot egin dugula uste izatera. Gure historian iraka ezabatu ezineko zer-bait dela erakutsi nahi digu Jesusek. Guk ez dugu ahalmenik kanpoko itxuraz besterik epaitzeko. Gura erne egotea da, ongia zaintzen eta gartzatzen saiatzeko beti.